

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ZUZENBIDE**  
**FAKULTATEKO BIZKAIKO ATALEKO 301 TALDEAK EGINDAKO ADIERAZPEN PUBLIKOA**

Kaixo! UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Saileko 301 taldeko ikasleak gara. Zuengana jotzen dugu gure Fakultatean eta, zehazkiago, gure gelan Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I ikasgaiko ordezeko irakaslearekin izandako arazoak azaltzeko.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu plataforma ezberdinetan egoera honen berri eman duten norbanako, gizarte-eragile, irakasle, komunikabide eta erakunde guztiei. Halaber, aitortu nahiko genieke haien lana nor bere eremutik gatazka honi irtenbidea ematen saiatzen ari diren organo eskudun guztiei.

Komunikatu honen helburua gertatutakoa zuzenean eta bitartekaririk gabe kontatu ahal izatea da. Argi utzi nahi dugu, gaur egun, komunikabideetan egindako esku-hartzeetatik bat bakarrik egin zela gure klasearen izenean (bertan parte-hartzaileen anonimotasuna bermatu zen), eta gainerakoak Campuseko ikasleak zirela, baina ez gure klasekideak. Hori esaten dugu, uste baitugu garrantzitsua dela zuzeneko kaltetuek diotena entzutea. Hauxe diogu beste ingurune batzuetatik jaso dugun laguntza alde batera utzi gabe, eta, nola ez, berriz ere eskertzen dugu laguntza hori.

Beraz, gertatutakoak kontatzeari ekiten diogu:

Aurreko astelehenean (2024/09/23), irakasle berri bat etorri zen aipatutako ikasgaia ematera, gure irakaslea ordezkatzuz, amatasun-bajan baitago. Egun horretan bertan, gizon horrek bere sare sozialetan iruzkin matxistak, LGTBifobikoak, xenofoboak, arrazistak, bortitzak, mehatxuzkoak... egiten zituela jakin genuen. Hona hemen adibide batzuk:

- *Mujeres partidarias del aborto que excluís al padre y menospreciáis la vida, hijas de puta, ¿ya habéis fregado como os ordené el otro día? Como vea alguna mancha en algún plato o vaso, vais a ver lo que es bueno... Condenad el crimen y parir, cabronas. Viva España, marranas. (X, 2023/10/19).*
- *De mí no se pitorrean porque saben que subo a la buhardilla y saco la escopeta de San Marcial. Te vas a reír de tu putísima madre, hombre (X, 2023/11/05).*
- *(...) Hay que meter el ejército en Cataluña (X, 2024/01/21).*
- *(Aurreko tuitak "britaniar kolonia ohi" aberats baten (ezkerrean) eta "espainiar kolonia ohi" txirotu baten (eskuman) arteko konparaketa egiten zuen. Bere erantzuna: Pero en la derecha hay indios. En la izquierda no porque los erradicaron (X, 2024/01/22).*
- *Como a Suárez siempre le ponen de ejemplo de moderación, digo lo que sigue. Mujeres de Irún que os parece bien la legalización del aborto, ¿queréis derechos? ¡Pues jugad al rasca y gana! ¡HIJAS DE LA GRANDÍSIMA PUTA! ¡Hombre ya! Esto es ser moderado con los del aborto (X, 2024/03/24).*
- *El general Mola se alzó en Pamplona con la bandera tricolor... ¡¡¡BUJARRÓN!!! Hay que ser bujarrón para alzarte con esa bandera... Te llego a pillar por Salamanca y te tiro al río... ¡TE IBAS A COMER LA ALMOHADA DE QUIEN YO TE DIGA! (X, 2024/05/10).*
- *Moscardó a su hijo: "Un beso muy fuerte, hijo mío" ¡¡¡JAAAAA, JAAAAA, JAAAAA!!! ¡VAYA PUTO MARICONAZO! Y Franco no hizo nada. Estos se comían la almohada mutuamente... Lo que tenía que haber dicho es: "muere como un patriota, maricón" Aún hay aceite en Toledo... (X, 2024/05/22).*

- *Si os parece, abro un despacho y me pongo a defender con una gran pluma los derechos de todos los maricones... Anda, decidle a Pedro Sánchez, Irene Montero y Arnaldo Otegi que os paguen el viaje a la democracia israelita de Benjamin Netanyahu para poder daros por culo... Julapas... (X, 2024/05/27).*
- *En Irún hay mucha puta y mucho maricón (X, 2024/06/02).*
- *Pfff... Qué pintas de bujarras tienen muchos del PP vasco... ¿Está de moda hacerse el maricón para ganar votos o qué? Que no cuenten conmigo porque los hundo... Antes que hacerme el mariquita, prefiero morir... Ya he tirado su papeleta a un bote de aceite... (X, 2024/06/05).*
- *Irene Montero ¿qué niños ni que hostias? El puto tiparraco de toda la vida... Para mí al menos. Para Santiago Abascal no sé... a lo mejor también le querría como a un mariconazo... (X, 2024/06/10).*
- *Hay que pegar un golpe militar (Katalunian) (X, 2024/06/11).*

Hau gutxi ez balitz, irakasle honek lehen klase horretan esan zuen, galderarik izanez gero, arlo horretako beste irakasle bati helaraziko ziola eta, ondoren, erantzungo zigula, gure irakasgaia hartzen duen Zuzenbidearen arloan espezializatuta ez baitzegoen. Horrek zalantza handiak sortzen ditu gure artean klase hori emateko duen gaitasunari eta prestakuntzari buruz, iruzkin erreazionarioetatik harago.

Gure klasetik modu anonimoan jakinarazi zitzaion egoera hori Unibertsitateari, erregelamenduz ezarritako kanalen bidez, erreklamazioaren ondorioz gutako inor lotzea ekiditeko, baita irakasle honengandik etor zitezkeen errepresalia posibleak ere ekiditeko.

Astean zehar, albiste hori zabaldu zen eta zenbait elkartek (zeintzuei berriz ere eskertzen diegun haien laguntza) egoera horren aurrean erreakzionatu zuten, hainbat ekitalditarako deia eginez. Ekitaldi horietako bat izan zen zuek denok aurrez jakingo zenutena: ostiralean (2024/09/27) irakasle horren aurka agertzeko eta UPV/EHU jarraitzearen kontra gure ikasgelaren aurrean egindako kontzentrazioa. Nahiz eta zenbait komunikabidetan eta sareetako profil astintzaileetan beste zerbaite esan, jarduera baketsua izan zen, eta bertako eta beste fakultate batzuetako ikasleak elkartu egin ziren gertaera horiek salatzen.

Ostirala iritsita, pertsona hori goizeko 10:50ak aldera joan zen ikasgelara, segurtasun-zaindarien babestuta. Ikaskideek ikasgelan utzi zituzten beren gauzak eta kafe baten bila irten ziren. Itzultzean, gelako ateak itxita eta Campusak azpikontratatuak segurtasuneko lau kideek zainduta aurkitu ziren. Beste irakasle batzuek berretsi dutenez, irakasleak ez zuen gela utzi teorikoki eman behar zituen bi orduak geratzeko borondatea adierazi zuelako. Hori dela eta, gezurtatu egiten dugu komunikabide gehienek emandako informazioa, alegia, 2 orduz egon zela atxikita bere borondatearen aurka. Are gehiago, zaindariak ziren, irakaslea iritsi baino lehenagotik, ikasgelarako sarbidea kontrolatzen zutenak. Izan ere, Dekanordea eta UPV/EHUko bi kide sartu ahal izan ziren, baita gure gelako pertsona bat ere, ikaskideek dena gertatu aurretik utzi zituzten gauzak berreskuratzeko.

Bi ordu horietan zehar, tentsio-une labur pare bat baino ez ziren bizi izan, horietako bat irakasleak bere *Instagram*ean egoera larritzeko asmoz argitaratu zituen mezu probokatzailen ondorioz, baina azkenean dena ezerezean geratu zen.

Denbora tarte horretan, dekanordeak eta beste talde eta Fakultateetako ikasleek ikasgelaren atarian egindako batzar batean parte hartu ahal izan genuen. Hauei guztiei haien lana eta enpatia aitortu nahi dizkiegu. Bertan, batzarra deitu zuten taldeei eta Unibertsitateko erakundeei jakinarazi genien aurreko egunean gertatutako ekintza bandaliko isolatua gaitzesten dugula, eta horrek ez duela zerikusirik ez klase honekin, ez gure Fakultatean egin diren manifestazio baketsuekin, eta irakasle horrek bere sare sozialetan emandako iritziak arbuiazen genituela.

Gertakariak argituta, klase honek aho batez gaitzesten ditu adierazpen hain bortitzak, matxistak, LGTBifobikoak, xenofoboak, arrazistak... Gure ustez, modu eta hitz horiek ez dute lekurik gure gizarte demokratikoan, eta honen oinarritzko balioei erasotzen diela deritzogu. Gainera, mezu horiek gure Zigor Kodearen 510. artikuluan tipifikatutako gorroto-diskurtsoaren delituaren eta adierazpen-askatasunaren arteko muga gainditzen dutela edo, gutxienez, urratzen dutela susmatzen dugu.

Azpimarratu nahi dugu gurea talde heterogeneoa dela zentzu guztietan (politikoki, ideologikoki, sozialki eta abar) eta, era berean, Fakultatean daramatzagun hiru urte hauetan irakasle batzuek iritzi edo pentsamendu desberdinak defendatu dituzte, askotan ikasle gehienek ideologietatik nahiko urrun, eta horrek ez duela inolako kezarik eragin. Are gehiago, gure ustez, oso aberasgarria izan da elkarren artean hain desberdinak diren pertsonekin ikasgelan ordu luzeak partekatzea, eta hori gure garapen intelektual zein pertsonalean lagungarria izan dela deritzogu. Izanez, uste osoa dugu hori izan behar dela unibertsitate publiko eta kalitatezkoaren funtsa.

Hala ere, ez dugu inoiz irakasle baten aldetik halako jarrera erreakzionario eta kezagarririk ikusi. Ez da bere adierazpenen lotsagarrikeria soilik, irakasle gisa agertze hutsak gure hezkuntzaren kalitatea eta UPV/EHUko irakasleen prestigioa kaltetzen dituela deritzogu (haren lankide batzuek ondo adierazi duten bezala).

Hori guztia esanda, argitu behar da gutako gehienak ez garela inongo talde edo elkarte politikotako kide (nahiz eta hedabide batzuek hala irakurri duten), eta eskatzen duguna dela, dagokion instantziari helarazi diogun bezala, gizon honek ez diezagula berriro eskolarik eman eta ahalik eta azkarren konpon dadila egoera hori, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I ikasgaiko klaseak jasotzeko dugun eskubidea kaltetuta baitago.

Eskerrik asko guztioi!

**UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Saileko 301 taldeko ikasleak**